

# BIZITZA INDEPENDENTEA IZATEKO LAGUNTZA

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Pertsona 18+ buru gaixotasuna > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomoa izateko**

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

## Norentzat

**Desgaitasun intelektuala eta/edo gaixotasun mentala** duten pertsonak, bizitza autonomoa izateko laguntza behar dutenak.

## Kostua

**Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua**, egoera ekonomikoaren eta baliabidearen erabileraren arabera

## Baldintzak

**18 urte edo gehiago.**

**Desgaitasun intelektuala eta/edo gaixotasun mentala.**

Errola (**12 hilabete**).

## Zertan datza?

Zerbitzu hau bizitza independenterako programa baten barruan dago, eta desgaitasun intelektuala edo buruko gaixotasuna duten pertsonen laguntza ematean datza, pertsona horiek dagoeneko modu independentean bizi badira edo bakarrik bizi nahi badute, bikotean edo desgaitasuna edo buruko gaixotasuna duten beste pertsona batzuekin bizi badira ([2.7.2.1 fitxa](#)). Laguntzak modu dinamikoan, malguan eta pertsona bakoitzaren beharretara egokituta eskaintzen dira. Bere helburuak honako hauek dira:

- Erabiltzaileen autonomia erraztea etxean

- Ostatu- edo egoitza-zerbitzu batean sartzea saihestea.
- Familiarekin, lagunekin, lankideekin edo bizilagunekin harremanen sarea sustatzea.
- Segurtasun- eta autoestimua-sentimendua areagotzea.
- Beren eskubideak aukera-berdintasunean bete-bete erabil ditzaten erraztea
- Bizimodu propioa eta independentea hautatzea ahalbidetzea.
- Bizitzako arlo guztietan parte-hartze aktiboa izan dezaten erraztea.

## Norentzat?

18 urte edo gehiago dituzten pertsonak, **adimen-ezgaitasuna eta/edo gaixotasun mentala** dutenak, edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna dutenak.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Koordinaketaren menpe dagoen zerbitzua** da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere diru-sarreraren eta erabilera-modalitatearen arabera.

## Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

**18 urte edo gehiago izatea.**

**Desgaitasun intelektuala eta/edo gaixotasun mentala.**

Erabilera pertsonalerako **egokia den etxebizitza** bat izatea.

**Menpekotasuna onartzen ez zaien pertsonen kasuan**, 12 hilabetez EAEn erroldatuta egotea eskatzen da.

Bizitza independentea garatu ahal izateko **gaitasun nahikoak izatea.**

**Laguntza behar izatea**, komunitateko bizitza errazteko edota etxean autonomia izateko.

## Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan.**

## Informazio gehiago:

- [Bizitza independentea izateko laguntza Araban](#)
- [Bizitza independentea izateko laguntza Bizkaian](#)
- [Bizitza independentea izateko laguntza Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)